

18/06/28

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek ETArekin biktimen aintzatespenagaz eta erreparazioagaz eta oroimen anitza eta partekatua eregiteagaz daukien konpromisoa berretsi dabe**

Gaur goizean egin dan Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu on eta Gardentasunerako Batzordean, talde guztiek, abstenidu egin dan EH Bilduk izan ezik, Foru Gobernua eusten daben taldeen, Podemos Bizkaiaren eta Talde Popularraren artean zuzenketa-eske transakzional moduan lortu dan akordioaren aldeko botoa emon dabe. Akordio hori, hasera batean Talde Popularrak planteau dauen Arauz Besteko Proposamen batetik sortu da. Danen artean adostutako zuzenketa-eskea onartzean, jatorrizkoa baztertu egin da.

Zuzenketa-eske transakzionala lau puntutan oinarritzen da. Lehenengoan, Bizkaiko Batzar Nagusiek adierazo dabe bat datozala “euskal gizarteak ETArekin behin betiko desagertzea berrestean erakutsi dauen nasaitasunagaz”; bigarren puntuan, terrorismoaren biktimek eskatzen daben “egia, justizia eta erreparazioa egiteko behararen aurreko zalantzarik bako konpromisoa” berrestean aparte, Bizkaiko Batzar Nagusiak Gogoraren (Oroimenerako, Bizikidetzarako eta Giza Eskubideetarako Institutua) eta Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontsejuaren esku jarten dira, eta bere egoitzak be horreen esku jarten ditue, “bidezkoak izan daitezkezan ekintza guztietarako”, eta baita biktimen “omenaldirako eta aintzatespenerako jarduketak” gauzatzeko.

Zuzenketa-eskearen hirugarren puntuan, Batzar Nagusiek adierazoten dabe oroimen “anitza eta partekatua” eraikuntza “edozein motako terrorismo edo indarkeriaren eta horren legitimazioaren” kontra agertzean oinarritu behar dala. Zuzenketa eskea jaso dauen testuaren azkenengo puntuan, Batzar Nagusien eretziz “komenigarria” da “legean aurreikusitako bergizartratze helburuak kontuan izanda” eta “euren jardueraren justizia eza autortuz”, ETArekin presoak “espetsuetako legetasunak eskaintzen deutesien aukerak erabiltea”.

Eztabaida horretan bertan EH Bilduk bere Arauz Besteko Proposamena defendidu dau. Batzar nagusiek “ETArekin biktimei eragindako kaltearen eta sufrimentuaren autorpena” erakutsi daien eta herritarrei eta indar politikoei eskaria egin deioen “modu eraikitzailean eta arduratsuan inplikau daitezkean indarkeriaren eta sufrimentuaren zikloari amaierara emoteko beharrea”.

Proposamen biak aurkeztu ostean, talde bakotzak bere jarrera erakutsi dau. Euzko Abertzaleak taldeko Jon Sánchezek eta Euskal Sozialistak taldeko Ekain Ricok azaldu dabe adostutako testua, ETArekin desegitea iragarri ostean Euzko Legebiltzarrean bozkatu zan dokumentukoa dala. EH Bildu alde agertu ez zanez, ezinezkoa izan zan Adierazpen Institutuzional bilakatu. Ricoren eretziz, testua “euskal gizarteak eta Bizkaiak azkenengo garaian pentsetan dabenaren adierazpen argia da”. Halanda be, EH Bilduren Arauz Besteko Proposamenaren lehenengo puntua ikusita, Ricok adierazo dau ezin dala pozik egon, “behar bada nik merezi nebala dinon komunikadua dalako”. Jon Sánchez bat etorri da, goitik behera, eretxi horregaz, “parkamen selektibo” hori baztertuz.

Podemos Bizkaia taldeak, Neskutz Rodríguez bozeroalearen eskutik, gizarteak eta gizarte arloko mobimenduek egindako beharra autortu dau, horreek “urteak daroezalako bakearen eraikuntzan”. Javier Ruiz Talde Popularreko bozeroaleak, bere haserako proposamenean jasoten zan moduan Gernikako Batzarretxeak biktimen aintzatespenerako ekitaldi “xume, hunkigarri eta solemnea” jasotea gurako leukela adierazo ostean, azpimarratu dau beharrezkoa dala “zehaztuko ez dauen eta gertautakoa zurituko ez dauen” kontakizuna eregitea. Modu berean, Arturo Aldecoa Talde Mistoaren ordezkariak, kontakizunak eta indarkeria deslegitimatzeak, ETA gainditzeaz gain, “txarkeria gainditzea” be lortu leikela esan dau.

Joseba Gezuraga EH Bildu taldeko ordezkariak, barriz, gaur onetsi dan ekimena “atzera pausua” dala esan dau, eta ganerako taldeei eurak “alde batera” iztea leporatu deutse. Halanda be, autortu dau Talde Popularra izan dala “gai honen ganean guganako begirune gehien erakutsi dauena”.

#### “LAGUNTZAK BAI, KONTROLA ERE BAI” KANPAINEA

Saioak Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Diputatuaren agerraldia be jaso dau, Gizarte arloko Zerbitzuen eta Prestazinoen Ikuskapen eta Kontrol Plan Orokorraren balantzea egiteko. Ezarri zanetik lehenengo urtea bete dan honetan, Sánchez Roblesekin esan dau “datuek erakusten dabela kobrantza desegokiak %1 baino gitxiago dirala” eta, hori dala eta “Bizkaiko gizarte zerbitzuetara bideratutako finantzaketea hartzaile izan behar diranengana heltzen dala”. %1 horren ganean adierazo dauenez, “gehienetan, onuradunek euren egoeran aldaketak egon dirala ez jakinarazoteagaitik” gertetan dira.

Bere presentziak Podemos Bizkaia taldeak egin dauen agerraldi eskari bati erantzun deutso. Eskaria hasera batean Unai Rementeria Ahaldu Nagusiari zuzenduta egoan, “laguntzak bai, kontrola ere bai” kanpainaren ganean berbetako.

#### BIZKAITAR ARGIAK

Eguneko gai zerrendea, Talde Popularrak Juan de Acurio, Juan de Arratia eta Juan de Zubileta Bizkaitar Argi izendatzeko aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamen bategaz osatu da. Hiru horreek, hasi zanetik 2019an 500 urte beteko dituan eta Fernando de Magallanes buru zala munduan zehar egin zan espedizinoan hartu eben parte. Proposamena ez da onetsi. Alde agertu dan talde bakarra Talde Mistoia izan da. EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak kontrako botoa emon dabe, eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek abstenidutea erabagi dabe.

28/06/18

## **Las Juntas Generales de Bizkaia reiteran su compromiso con el reconocimiento y reparación de las víctimas de ETA, así como la construcción de una memoria plural y compartida**

En la Comisión Institucional de Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia celebrada esta mañana todos los grupos, a excepción de EH Bildu que ha optado por la abstención, han votado a favor del acuerdo alcanzado entre los grupos que sustentan al Gobierno Foral, Podemos Bizkaia y Grupo Popular en forma de enmienda transaccional. Dicho acuerdo parte de una Proposición No de Norma inicialmente planteada por el Grupo Popular, y que al adoptar la enmienda conjunta, ha sido retirada.

La enmienda transaccional está fundamentada en cuatro puntos. En el primero la Cámara vizcaína afirma compartir “el alivio de la sociedad vasca ante la confirmación de la desaparición definitiva de ETA”; en el segundo punto, además de reiterar el “compromiso inequívoco con la necesidad de verdad, justicia y reparación” reclamada por las víctimas del terrorismo, las Juntas Generales de Bizkaia se ponen a disposición de Gogora (Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos) y del Consejo vasco de Participación de las víctimas del Terrorismo, así como sus sedes, “para cuantas acciones entiendan pertinentes” además de para desarrollar las pertinentes “actuaciones para el homenaje y reconocimiento” de las víctimas.

En el tercer punto de la enmienda la institución parlamentaria defiende que la construcción de una memoria “plural y compartida” debe basarse en el rechazo público a “cualquier forma de terrorismo o violencia y a su legitimación”. En el punto final del texto enmendante, las Juntas Generales consideran “conveniente” que, “atendiendo a los objetivos de reinserción previstos en la legislación” y “asumiendo la injusticia de su actividad”, los presos de ETA “se acojan a las posibilidades que les ofrece la legalidad penitenciaria”.

En este mismo debate EH Bildu también ha defendido su Proposición No de Norma la cual instaba a que las Juntas Generales mostraran “satisfacción por el reconocimiento del daño y el sufrimiento causado a las víctimas por parte de ETA”, y a que apelaran tanto a la ciudadanía como a las fuerzas políticas a “implicarse de manera constructiva y responsable en la tarea de cerrar el ciclo de la violencia y el sufrimiento”.

Una vez ambas propuestas han sido presentadas, se ha dado lugar al posicionamiento de los grupos. Tanto Jon Sánchez, del grupo Nacionalistas Vascos, como Ekain Rico, del Grupo Socialistas Vascos, han explicado que el texto acordado responde en su mayoría al documento que se sometió a votación en el Parlamento Vasco tras el anuncio de disolución de ETA y que, al no ser aprobado por EH Bildu, no puede convertirse en una Declaración Institucional. En opinión de Rico, el texto “es una perfecta expresión de lo que la sociedad vasca y de Bizkaia viene pensando en los últimos tiempos”. No obstante, ante el primer punto de la PNN de EH Bildu, Rico ha manifestado no poder mostrar su satisfacción “por un comunicado que dice que igual yo me lo merecía”. Un argumento

que ha compartido en su totalidad Jon Sánchez quien también ha rechazado ese “perdón selectivo”.

Por su parte Podemos Bizkaia, a través de su portavoz Neskutz Rodríguez, ha reconocido la labor de la sociedad y los movimientos civiles manifestando que estos “llevan años en la construcción de paz”. El portavoz del Grupo Popular, Javier Ruiz, además de mostrar su deseo por que la Casa de Juntas de Gernika acoja un acto “sencillo, emotivo y solemne” de reconocimiento a las víctimas, tal y como se recogía en su propuesta inicial, ha incidido en la necesidad de construir un relato “que no dilucide ni blanquee”. De igual manera el representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha manifestado que tanto el relato como la deslegitimización de la violencia pueden lograr, no solo derrotar a ETA, sino “derrotar al mal”.

El representante de EH Bildu, Joseba Gezuraga, sin embargo ha declarado que la iniciativa aprobada hoy se trata de “un paso atrás” y ha acusado al resto de formaciones de dejarles “de lado”. A pesar de ello, Gezuraga ha admitido que el Grupo Popular “ha sido el que más deferencia ha tenido con nosotros respecto a este tema”.

#### CAMPAÑA “AYUDAS SÍ, CONTROL TAMBIÉN”

La sesión ha contado también con la comparecencia de la Diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, quien ha realizado un balance del Plan General de Inspección y Control de Servicios y Prestaciones Sociales. Tras el primer año de su implantación, Sánchez Robles ha concluido en que “los datos indican que detectamos menos de un 1% de cobros indebidos” y que por lo tanto “la financiación destinada a los servicios sociales de Bizkaia llega a quien debe llegar”. Al respecto de este 1% ha aclarado que en su mayoría se debe a “falta de comunicaciones por parte de las personas beneficiarias de cambios en su situación”.

Su presencia responde a una solicitud de comparecencia planteada por Podemos Bizkaia e inicialmente dirigida al Diputado General en relación a la campaña “Ayudas sí, control también”.

#### ILUSTRES DE BIZKAIA

El orden del día se ha completado con el rechazo de una última Proposición No de Norma presentada por el Grupo Popular en la que se instaba a la Diputación Foral de Bizkaia a que nombrara Ilustres de Bizkaia a Juan de Acurio, Juan de Arratia y Juan de Zubileta con razón del 500 aniversario en 2019 del inicio de la expedición encabezada por Fernando de Magallanes alrededor del mundo y en la que tomaron parte. La propuesta ha sido denegada al contar solo con el apoyo del Grupo Mixto. Los grupos EH Bildu y Podemos Bizkaia han votado en contra mientras que los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han optado por abstenerse.